

OPE
2007



2007ko
LEP

KODEA Lanpostua/k:

C-2005

ADMINISTRARIA

1. ariketa. 2. proba

TEST GALDERAK

Galderak: 70.
Denbora, gehienez: 75 min.

EREDUA:

C

- Ez zabaldu esan arte.
- Proba bukatzean inprimaki hau zeurekin eraman dezakezu.
- Gogoan izan:
 - o Asmatuak: 1,00
 - o Hutsegiteak: - 0,33
 - o Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: - 0,00
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan. Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez ahaztu orri horia eta argibide-orria zeurekin eramatea.

Eskerrik asko zure laguntzagatik.

1	ZEIN ERROLDATAN IZEN EMAN BEHAR DU UDALERRI BATEAN BAINO GEHIAGOTAN BIZI DENAK?
A	Biztanle gehien daukan udalerrikoan.
B	Urtean denbora gehien bizi den udalerrikoan.
C	Edozeinetan.
D	Ez dago udalerrri bat baino gehiagotan bizitzerik.
2	NOIZ LORTZEN DA AUZOTAR IZAERA?
A	Udal erroldan izena ematean bertan.
B	Erroldan izena ematen denetik 15 egunera, kontrako ebazpenik izan ez bada.
C	Bizilekua udalerrian finkatzen denean.
D	Edozein kasutan ere, udal zergak ordainduta eduki beharra dago.
3	ADIERAZI ONDORENGO HAUETAKO ZEIN EZ DEN NAHITAEZKO DATUA UDAL ERROLDAN IZENA EMATEKO?
A	Egoera zibila.
B	Sexua.
C	Ohiko bizilekua.
D	Eskola-agiri edo titulu akademikoa.
4	ZEINI DAGOKIO ERROLDA ERATU, ZAINDU, BERRIKUSI ETA JAGOTEA?
A	Estatuko gobernuari.
B	Aldundiari.
C	Udalari.
D	Eusko Jaurlaritzari.
5	TOKIKO GOBERNU BATZARRA. ADIERAZI ZEIN DEN BAIEZTAPEN ZUZENA:
A	Alkateak izendatzen ditu Tokiko Gobernu Batzarreko kideak, eta udalbatzari jakinarazten. Alkatea Tokiko Gobernu Batzarreko kide da.
B	Legezko zinegotzi kopuruaren herena gairiditu ezin duen zinegotzi kopuru batek osatzen du Tokiko Gobernu Batzarra, eta ez da nahitaezkoa alkatea Tokiko Gobernu Batzar horretako kide izatea.
C	Alkateari bere eskumenetan laguntzea dagokiko Tokiko Gobernu Batzarri, baina alkateak ezin du inongo eskumenik haren gain utzi.
D	Alkateak izendatzen ditu Tokiko Gobernu Batzarreko kideak, baina udalbatzak nahiz alkateak kentzen ditu kargutik.
6	ESTATUAREN PROBINTZI ANTOLAKUNTZARI GAGOZKIOLARIK, ZEIN DIRA DIPUTAZIO GUZTIAN DAUDEN ORGANOA?
A	Lehendakaria, tokiko gobernu batzarra eta osoko bilkura.
B	Lehendakaria, lehendakariordeak eta osoko bilkura.
C	Lehendakaria eta osoko bilkura.
D	Lehendakaria, lehendakariordeak, tokiko gobernu batzarra eta osoko bilkura.

7	NOLA DEITZEN DIRA HIRI AGLOMERAZIO HAN-DIETAKO UDALERRIEK, BERTAKO POPULAZIO GUNEEN ARTEAN PLANGINTZA BATERATUA EGITEA ETA ZENBAIT ZERBITZU ETA OBRA KOORDINATZEA BEHARREZKO EGITEN DUTEN LOTURAK DAUDENEAN OSATZEN DITUZTEN TOKI ERAKUNDEAK:
A	Eskualdeak.
B	Metropoli-barrutiak.
C	Mankomunitateak.
D	Probintziak.
8	MANKOMUNITATEEN ESTATUTUEI GAGOZKIE-LARIK:
A	Mankomunitateko udalerrri guztietako zinegotzi guztien biltzarrak landu eta onesten ditu.
B	Mankomunitateko udal guztietako udalbatzek landu eta onesten dituzte.
C	Mankomunitateko udalerrri guztietako zinegotzi guztien biltzarrak lantzen ditu, eta udal guztietako udalbatzek onesten.
D	Mankomunitateko udalerrri guztietako udalbatzek lantzen dituzte, eta mankomunitateko udalerrri-tako zinegotzi guztien biltzarrak onesten.
9	MANKOMUNITATEEK...
A	Nortasun eta gaitasun juridiko propioak dituzte.
B	Nortasun juridikoa dute, baina ez gaitasun juridikorik.
C	Gaitasun juridikoa dute, baina ez nortasun juridikorik.
D	Ez dute ez nortasun eta gaitasun juridiko propiorik.
10	ADIERAZI ZEIN DEN OKERREKO ERANTZUNA, POPULAZIO GUNE BEREZIEEN ADMINISTRAZIO DESZENTRALIZATURAKO SORTUTAKO TOKI ERAKUNDEEI GAGOZKIELARIK:
A	Populazio interesdunari nahiz udalari, batari nahiz besteari dagokio ekimena.
B	Zuzenean hautatutako pertsona bakarreko organo betearazle bat eduki behar du erakundeak, eta kontrol organo kolegiatu bat.
C	Erakundea zein udalerritakoa den, bertako udalbatzaren osaera errespetatu behar du organo kolegiatuko kideen izendapenak.
D	Hauek dira, besteak beste, erakunde horien izendapen tradizionalak: auzuneak, parrokiak, kontzejuak, alkate-auzoak eta herrixkak.
11	HONAKO HAUEK IZANGO DUTE GAITASUNA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN AURREAN, ARAU ZIBILEN ARABERA GAITASUN HORI DUTEN PERTSONEZ GAIN:
A	Adingabeek, baldin eta 10 urtetik gorakoak badira.
B	Edozein adingabek, bere egoera edozein izanik ere.
C	Adingabeek, beren jarduera ordenamendu juridiko-administratiboan baimendua badago, guraso-agintea, tutoretza edo kuratela duten pertsonen lagun egiten dietelarik.
D	Adingabeek, beren jarduera ordenamendu juridiko-administratiboan baimendua badago, guraso-agintea, tutoretza edo kuratela duten pertsonen lagun egin gabe.

12	IZAPIDE HUTS DIREN EGINTZA ETA KUDEAKETETAN, ORDEZKARI BITARTEZ EGITEN DIRELARIK, ORDEZKOTZA...
A	Besterik gabe ontzat joko da.
B	Zuzenbidean baliozko den edozein bitarteko baliatuz egiaztatu beharko da.
C	Interesduna bera bertaratu eta hala deklaritzen duelarik egiaztatuko da.
D	b) eta c) erantzunak zuzenak dira.
13	30/1992 LEGEAREN ARABERA, NOIZ DUTE HERRITARREK ALEGAZIOAK EGIN ETA AGIRIAK AURKEZTEKO ESKUBIDEA?
A	Prozeduraren edozein fasetan, entzunaldiaren izapidearen ondoren.
B	Prozeduraren edozein fasetan, jendaurreko erakustaldiaren izapidearen ondoren.
C	Prozeduraren edozein fasetan, jendaurreko erakustaldiaren izapidearen aurretik.
D	Prozeduraren edozein fasetan, entzunaldiaren izapidearen aurretik.
14	ADMINISTRAZIO EGINTZA BAT JAKINARAZTEKO LEHENENGO SAIOA INTERESDUNAREN BIZILEKUAN EGITEN DELARIK, HURA BERTAN EZ BADA...
A	Haren bizilekuan dagoen edozeinek hartu ahal izango du bere gain jakinarazpena, nor den jasota uzten bada.
B	Jakinarazpena emateko saioa egin dela jasoko da dosierrean, eta prozedurarekin jarraituko.
C	Azken bizilekua non izan duen, bertako udaltzeko iragarki-oholean iragarkia jarri gauzatuko da jakinarazpena.
D	Hiru bider errepikatuko da jakinarazpena gauzatzeko saioa, interesduna etxean egokitu arte.
15	HAUXE IZANGO DA GORA JOTZEKO ERREKURTSOA AURKEZTEKO EPEA:
A	Hilabete bat, beti ere.
B	Bi hilabete, beti ere.
C	Hiru hilabete, beti ere.
D	Hilabete bat, egintza berariazkoa bada; bestela, berriz, hiru hilabete.
16	HAUXE DA AUKERAKO BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA AURKEZTEKO EPEA:
A	Hilabete bat.
B	Hiru hilabete.
C	Hilabete bat, kontra egiten zaion egintza berariazkoa bada; bestela, berriz, hiru hilabete.
D	Hiru hilabete, kontra egiten zaion egintza berariazkoa bada; bestela, berriz, hilabete bat.
17	ADMINISTRAZIO ORGANOEEN ERREGISTROKO IDAZPENAK HAUXE ERRESPETATUZ EGINGO DIRA:
A	Idazki eta komunikazioen sarrera edo irteera hurrenkera.
B	Sartu edo ateratzen diren idazki eta komunikazioen garrantzi-hurrenkera.
C	Sartu edo ateratzen diren idazki eta komunikazioen hierarkia-hurrenkera.
D	Sartu edo ateratzen diren idazki eta komunikazioen garrantzi- edo hierarkia-hurrenkera.

18	PERTSONA BATEK AGIRI BAT AURKEZTEN DUELARIK, PROZEDURAN JATORRIZKOA JASO BEHARRA BADAGO...
A	Gehienez hiru hilabeteko epean itzuli beharko du administrazioak.
B	Agiriaren kopia zigilatua emango dio administrazioak dena delakoari, jatorrizkoarekin bat datorrela egiaztatu ondoren.
C	Administrazioak inolaz ere ezin du jatorrizkoarekin geratu. Izatekotan, kopia erkatu batekin geratuko da.
D	Administrazioa jatorrizkoarekin geratzen bada, interesdunak eskatu ahal izango dio, eta gehienez hilean hamabost egunez bere esku eduki.
19	ADIERAZI ZEIN DEN OKERREKO ERANTZUNA. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK JARTZEN DITUZTEN ERREGISTROAK EUSKARRI INFORMATIKOAN INSTALATU BEHARKO DIRA, ETA IDAZPEN BAKOITZEAN HAUXE JASOTZEN DELA BERMATU BEHARKO DU SISTEMAK:
A	Agiria aurkezten den ordua.
B	Interesdunaren identifikazioa.
C	Erregistroaren arduradunaren oharrak.
D	Erregistratzen den idazki edo komunikazioaren edukiaren erreferentzia.
20	UDALBATZAREN OSOKO BILKUREN GAI-ZERRENDA:
A	'Galde-eskeak' atala sartu ahal izango da, baina ez da nahitaezkoa izango.
B	Idazkaritzak finkatuko du, talde politiko guztien eledunei kontsulta egin ondoren.
C	Premia arrazoiak direla medio, dagokion batzordeak irizpena eman gabeko gaiak sartu ahal izango dira.
D	Salbuespenezko kasuetan bakarrik baliatu ahal izango da premiatasuna, eta alkatearen ekimena dela medio baino ez.
21	ZEINEK EGITEN DITU UDALBATZAREN OSOKO BILKURETARAKO DEIALDIAK?
A	Alkateak, ohiko bilkura bada, eta idazkariak, berriz, apartekoa bada.
B	Udaleko idazkariak.
C	Alkateak.
D	Egia esan, aparteko bilkuren kasuan bilkura egitea eskatu duen taldearen eledunak egiten du deialdia.
22	ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN ZUZENA. UDALBATZAREN OSOKO BILKURA BALIO OSOZ ERATZEKO, HAUEK IZAN BEHARKO DUTE BERTAN:
A	Udalbatzako kideen legezko kopuruaren erdia eta bat gehiago, eta inolaz ere ez hiru kide baino gutxiago.
B	Udalbatzako kideen legezko kopuruaren erdia eta bat gehiago, eta inolaz ere ez lau kide baino gutxiago.
C	Udalbatzako kideen legezko kopuruaren heren bat, eta inolaz ere ez lau kide baino gutxiago.
D	Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

23	ZEINEK EGITEN DITU UDALBATZAREN BILKUREN AKTAK?
A	Alkateak.
B	Lehen alkateordeak.
C	Idazkariak.
D	Zinegotzirik zaharrenak.
24	AKTA, UDALBATZAK ONETSI ONDOREN...
A	Akta liburura aldatuko da.
B	Udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da.
C	Dagokion probintziako buletin ofizialean argitaratuko da.
D	Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
25	SUSTATZE JARDUERAREN BAITAN, DIRU-LAGUNTZAK EMAN AHAL IZANGO DITUZTE TOKI-KORPORAZIOEK. ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN ZUZENA, HORRI GAGOZKIOLARIK:
A	Dena delako jardueraren % 75era arteko diru-laguntza eman ahal izango dute.
B	Borondatezkoak eta aldi batekoak izango dira, legez edo arauz xedatzen dena salbu delarik.
C	Aurrekari gisa aipatu ahal izango dira.
D	Eskuzabaltasun hutsez erabaki ahal izango dute diru-laguntzak ematea.
26	DIRU-LAGUNTZA BATEN ZENBATEKOAK, LAGUNTZA JASOTZEN DUEN JARDUERAREN KOSTUAREN ZER EHUNEKO EZINGO DU GAINDITU?
A	% 25a.
B	% 50a.
C	% 75a.
D	Ez dago legez finkatutako mugarik.
27	ZERBITZUEN ARAUDIA: NOIZ DEKLARATU AHAL IZANGO DIRA ADMINISTRATUEK NAHITAEZ HARTU ETA ERABILI BEHARREKOTZAT TOKI-ERAKUNDEEN ZERBITZUAK?
A	Herritarren lasaitasuna, segurtasuna edo osasun-garritasuna bermatzeko beharrezko denean.
B	Toki erakundearen aurrekontu eta finantza oreka lortzeko beharrezko denean.
C	Beharrezko denean, beste inongo administrazioak zerbitzu horiek eskaintzen ez dituela eta.
D	Aurreko hiru kasuetan.
28	TOKI-KORPORAZIOEN ZERBITZUEN ARAUDIAREN ARABERA, KORPORAZIOAREN ERREGISTROAN LIZENTZIA-ESKABIDEA AURKEZTEAN:
A	Proiektu teknikoa erantsi beharko da, beti.
B	Ez da proiektu teknikoa erantsi beharrik izango, inoiz ere.
C	Proiektu teknikoa erantsi beharko da, obra edo instalazioak egiteko bada.
D	Proiektu teknikoa erantsi beharko da, salbu eta obra edo instalazioak egiteko bada.
29	PERTSONA BATEK OBRA LIZENTZIA ESKATZEN BADU, ETA EGIN BITARTEAN HIRUGARREN BATI KALTEAK SORTZEN BADIZKIO, OBRAK EGITEN DITUENAREN ERANTZUKIZUN ZIBILA...
A	Baztertua geratuko da, lizentzia eman dion udala baita erantzule.
B	Murriztu egingo da, lizentzia eman dion udala eta onuraduna modu solidarioan baitira erantzule.
C	Objektiboa eta zuzena da, salbu eta ordainez ematea ezinezko bada eta, hortaz, administrazioak modu subsidiarioan erantzun behar badu.
D	Ez da ez baztertzen, ez murrizten udalak alde aurretik obra lizentzia eman izanagatik.

30	OBRA LIZENTZIA BAT OKER EMAN BADA...
A	Baliogabetu ahal izango da, eta gauzak lehengora bihurtu.
B	Ezingo da baliogabetu, eta jasan egin beharko du obra udalak.
C	Baliogabetu ahal izango da, baina, nolana ere, egina dagoena bere horretan geratuko da.
D	Ezeztatu egingo da onuradunak kalte-galerak ordaintzen ez baditu.
31	PERTSONA BATI BERE DELA ESATEN DUEN ONDASUN BAT KONPONTZEKO OBRA-LIZENTZIA EMAN BAZAIO...
A	Hirugarren batek ezingo du ondasunaren jabetza beretzat galdatu, udalak –lizentzia ematean– eskatzailea haren jabe dela onartu baitu.
B	Hirugarren batek ezingo ditu alegatu obrak aldameneko bere ondasunean sortzen ari diren kalteak; izan ere, udalak –lizentzia ematean– baimendu egin baitzituen obra horiek.
C	a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
D	a) eta b) erantzunak okerrak dira.
32	ADMINISTRAZIOAK ONDAREAREN GAINEAN DUEN ERANTZUKIZUNA ZEHAZTEKO, ARAUZ FINKATUKO DA...
A	Prozedura orokor bat.
B	Prozedura laburtu bat.
C	Prozedura orokor bat, prozedura laburtu bat barne hartzen duelarik.
D	Nolana ere, legez finkatuko da prozedura, ez arauz.
33	DAGOKIEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KALTE-ORDAINAK ORDAINTZEKO ESKUBIDEA IZANGO DUTE PARTIKULARREK...
A	Beren ondasun eta eskubideetan eragindako kalteengatik, beti ere, izandako kaltea zerbitzu publikoen jardura on edo txararen ondorioz sortu bada, ezinbesteko kasuetan izan ezik.
B	Ezinbesteko kasuetan izan ezik.
C	Udalerrria hondamen-eremutzat jotzea ekarri duen egoeraren bat sortu denean bakarrik.
D	Inolaz ere ez.
34	ONDAREAREN GAINEKO ERANTZUKIZUNA GAUZA DADIN, AGINTARIEK ETA ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZURA DIHARDUTEN LANGILEEK SORTUTAKO KALTE ETA GALERENGATIKO KALTEORDAINAK GALDATUKO DITUZTE PARTIKULARREK. ZEINI GALDATUKO DIZKIOTE?
A	Partikularrek ez dute eskubide hori.
B	Zuzenean erantzule den pertsonari.
C	Zuzenean, dagokion epaitegiari.
D	Zuzenean, dagokion administrazio publikoari.

35	ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK ERANTZULE DIREN KALTEENGATIKO KALTEORDAINA HONAKO HAUTAN FINKATUTAKO BALORAZIO-IRIZPIDE-EN ARABERA KALKULATUKO DA:
A	Jabetza nahitaez kentzearen inguruko legedia, aurrekontu legedia eta aplikagarri diren gainerako arauak.
B	Jabetza nahitaez kentzearen inguruko legedia, finantza legedia eta aplikagarri diren gainerako arauak.
C	Jabetza nahitaez kentzearen inguruko legedia, zerga legedia eta aplikagarri diren gainerako arauak.
D	Jabetza nahitaez kentzearen inguruko legedia, aurrekontu legedia eta aplikagarri diren gainerako arauak, behar izanez gero merkatuan nagusi diren balorazioak haztatuz.
36	KONTRATUEN LEGEA (2/2000 LEGEGINTZAZKO ERREGE DEKRETUA). KONTRATUEN ZUZENEKO XEDEA –BATERA NAHIZ BEREIZ– ZERBITZU PUBLIKOAK KUDEATZEA DENEAN, NOLAKOAK DIRA KONTRATU HORIEK?
A	Kontratu bereziak.
B	Kontratu pribatuak.
C	Administrazio kontratuak.
D	Kudeaketa kontratuak.
37	ADMINISTRAZIO KONTRATUEN KATEGORIATIK SALBUETSITA DAUDE...
A	Xedea hornikuntzak egitea dutenak.
B	Aholkularitza emateko direnak.
C	Ikuskizunak eskaintzeko direnak.
D	Administrazio izaera berezia dutenak, kontratua egiten duen administrazioaren berariazko nora-bide edo trafikoari lotuta daudelako.
38	HAUXE DA ADMINISTRAZIO KONTRATUETAN ALDEEN ARTEAN SORTZEN DIREN EZTABAIDAK EBAZTEKO ESKUMENA DUEN JURISDIKZIO ORDENA:
A	Jurisdikzio zibila.
B	Ekonomi eta administrazio jurisdikzioa.
C	Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa.
D	Administrazio kontratua zen motatakoa den, horren arabera.
39	ADIERAZI ZEIN DEN OKERREKO ERANTZUNA. HONEKIN JUSTIFIKATU AHAL IZANGO DA ENPRESARIAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREKIN KONTRATATZEKO ESKAINTZEN DUEN FIDAGARRITASUN TEKNIKOAK:
A	Enpresariaren eta obra-arduradunaren agiri akademikoak eta esperientzia.
B	Azken bost urteetan egindako obren zerrenda.
C	Arrisku profesionalen kalteordaina ordaintzeko aseguruaren egiaztagiria.
D	Dauzkan makinariaren, materialen eta talde teknikoaren deklarazioa.
40	ENPRESA BATEK KIEBRA JOTZEN BADU...
A	Kontratatzeko debekua izango du, beti.
B	Ez du kontratatze debekurik izango.
C	Sei milioi eurotik gorako kontratuak egiteko debekua izango du.
D	Obra kontratuen kasuan bakarrik dago kontratatze debekua.

41	ORO HAR, ENPRESEN SAILKAPENA BETE BEHARREKO BALDINTZA DA OBRA-KONTRATUAK EGITEKO, BAITA ZENBAIT ZERBITZU-KONTRATUTARAKO ERE...
A	Beti.
B	Kontratuak sei hilabetetik gorako iraunaldia badu.
C	Kontratuaren aurrekontu 120.202,42 eurokoa edo hortik gorakoa bada.
D	Enpresak 600.000 eurotik beherako negozio-bolumena izan badu aurreko urtean.
42	ALDI BATERAKO ENPRESARI ELKARTEEN SAILKAPENARI GAGOZKIOLARIK, BERTAKO ZEIN ENPRESAK LORTUA IZAN BEHARKO DU ALDEZ AURRETIK SAILKAPENA, OBRA EDO ZERBITZU ENPRESA GISA, DENA DELAKO KONTRATUA EGIN AHAL IZATEKO?
A	Elkartea osatzen duten enpresa guztiek.
B	Aski da elkartea osatzen duten enpresetako batek izatea.
C	Elkartea osatzen duten enpresen erdiak.
D	Elkartea osatzen duten enpresa guztien kapitalaren gutxienez % 50a ordezkatzeko duten enpresek.
43	ZER INDARRALDI IZANGO DU ENPRESEN SAILKAPENAK?
A	Sei hilabete.
B	Urtebete.
C	Bi urte.
D	Bost urte.
44	NOLA DEITZEN DA ADMINISTRAZIOAK BERRIAZ HAUTATUTAKO ENPRESARIEK BAKARRIK ESKABIDEAK AURKEZ DITZAKETEN ADMINISTRAZIO KONTRATUAK ESLEITZEKO PROZEDURA?
A	Berariazko deia.
B	Mugatua.
C	Negoziatua.
D	Lehiaketa.
45	NOLA BIDERA DAITEKE KONTRATUEN ESLEIPENA?
A	Enkantearen eta zuzeneko kontratazioaren bidez.
B	Enkantearen eta lehiaketaren bidez.
C	Prozedura ireki, mugatu edo negoziatu baten bidez.
D	Aurrekoetako bat ere ez da egiazko.
46	ADIERAZI ZEIN DEN OKERREKO ERANTZUNA, ADMINISTRAZIO KONTRATUAK ESLEITZEKO PROZEDURARI BURUZKO ARAU OROKORREI GAGOZKIOLARIK:
A	Lehiakideen eskaintzak isilpekoak izango dira.
B	Lehiakide berak ezingo du egonaldi baterako enpresa elkarte bat baino gehiagotan.
C	Prozedura guztietan kontratazio mahai bat eratu beharko da, kontratazio organoari aholku emateko.
D	Kontratuak esleitzeko prozedura guztiak, salbu eta negoziatuak badira, BOEn iragarri beharko dira.

47	ENKANTEETAN, HASIERA BATEAN AUSARKERIA-USTEKIZUNA ERAGIN DUEN ESKAINTZA EGIN DUEN ENPRESARIARI, ZENBATEKO BEHIN BETIKO BERMEA ESKATUKO ZAIO?
A	Esleipen-zenbatekoaren % 10koa.
B	Esleipen-zenbatekoaren % 15koa.
C	Esleipen-zenbatekoaren % 20koa.
D	Esleipen-zenbatekoaren % 25koa.
48	KONTRATUAK LEHIAKETA BIDEZ ESLEITZEKO DIRENEAN...
A	Kontratua esleitzeko baliatuko diren irizpideak finkatuko dira administrazio-klausula partikularren orrietan, garrantziaren arabera goranzko hurrenkeran.
B	Prezioa ezin da izan kontuan hartzen diren irizpideetako bat.
C	Lehiakideek aldaera edo alternatiba desberdinak aurkezten dituzte.
D	Lehiaketa esleitu gabe usteko ahalmena du administrazioak.
49	ZER EPE DAUKA KONTRATAZIO ORGANOA KONTATUA ESLEITZEKO, LEHIAKETARA AURKEZTUTAKO ESKAINTZAK AGERIAN JARTZEN DIRENETIK?
A	Hamabost egun.
B	Hilabete.
C	Hiru hilabete.
D	Lau hilabete.
50	BEHIN BETIKO ZER BERME EMAN BEHARKO DIO ESLEIPENDUNAK KONTRATUA EGITEN DION ORGANOARI, ADMINISTRAZIO KONTRATU BATEAN?
A	Esleipen-zenbatekoaren % 2koa.
B	Esleipen-zenbatekoaren % 4koa.
C	Esleipen-zenbatekoaren % 6koa.
D	Esleipen-zenbatekoaren % 8koa.
51	ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOAN, BALIOGABETZAT JOTZEKO ARRAZOIA IZANGO DA...
A	Esleipendunaren jarduteko gaitasunik eza.
B	Esleipendunak fidagarritasun tekniko edo profesionalik ez duela egiaztatzea.
C	Batere edo nahikoa krediturik ez edukitzea.
D	Aurreko erantzunetan adierazitakoak, hirurak dira baliogabetzat jotzeko arrazoi.
52	KONTRATU BAT PRESTATZEKO EGINTZEN BALIOGABETASUN DEKLARAZIO IRMOAK...
A	Ez du eraginik esleipenean, ezta kontratuaren iraunaldian ere.
B	Kontratuaren baliogabetasuna ekarriko du berekin, eta likidazio aldian sartuko da hura.
C	Kontratuaren zenbait alderdi aldatzea ekarri ahal izango du berekin.
D	Kontratua baliogabetea ekar dezake berekin, salbu eta baliozkotzen bada.

53	ADMINISTRAZIOAK KONTRATUKO OBLIGAZIOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOZ DESEGIN BADA KONTRATU BAT...
A	Edozein eratako erantzukizun orotatik salbuetsita geratuko da administrazioa.
B	Eragindako kalte eta galerak ordaindu beharko dizkio administrazioak kontratistari.
C	Jarritako bermearen bikoitza ordaindu beharko dio administrazioak kontratistari.
D	Eragindako kalte eta galerak ordaindu beharko dizkio administrazioak kontratistari, eta, gainera, jarritako bermearen bikoitza.
54	KONTRATU TXIKIEN KASUAN, PREZIOAK BERRIKUSTEA....
A	Posible da, inongo berezizkuntzarik gabe.
B	Administrazio klausula partikularren orrietan hala adierazi bada bakarrik da posible.
C	Kontratistak onartzea eskatzen du.
D	Inolaz ere ezin da egin.
55	ADMINISTRAZIOEN LANPOSTU ZERRENDETAN, BESTEAK BESTE, LANPOSTU BAKOITZAREN EZAUGARRI HAUEK ADIERAZI BEHAR DIRELA DIO EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN LEGEAK:
A	Izena, dedikazio-erregimena eta taldeari dago-kion oinarriko ordainsaria.
B	Lanpostuan jarduteko eskatzen diren betebeharrak, arriskugarritasuna eta atxikia dagoen sail edo zuzendaritza-zentroa.
C	Dedikazio-erregimena, hizkuntza-eskakizuna eta atxikia dagoen talde, kidego edo eskala (talde bati baino gehiagori atxikia egon daiteke).
D	Guztiak egia dira.
56	ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN BEREN BARNE EGITURAK ARRAZIONALIZATU ETA ANTOLATZEKO ETA DITUZTEN LANGILE-BEHARRAK ZEHAZTEKO TRESNA HAUEK BALIA DITZAKETELA DIO EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN LEGEAK:
A	Lanpostu zerrendak.
B	Aurrekontuko plantillak.
C	Lan eskaintza publikoak.
D	Langile erregistroak.
57	HAUXE DIO EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN LEGEAK LAN ESKAINTZA PUBLIKOAZ:
A	Urtero egin behar dela.
B	Hutsik dauden funtzionario-lanpostuak bakarrik hartuko dituela.
C	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar dela beti, osorik.
D	Guztiak okerrak dira.
58	GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMEK...
A	Borondatezko lan-utzialdirako pizgarriak jaso ahal izango dituzte, baina ez aurretiazko erretirorako pizgarriak.
B	Zerbitzu aktiboari uko egiteko pizgarriak jaso ahal izango dituzte, baina ez behin betiko baja hartzeko pizgarriak.
C	Borondatezko lan-utzialdirako, aurretiazko erretirorako, zerbitzu aktiboari uko egiteko nahiz behin betiko baja hartzeko pizgarriak jaso ahal izango dituzte.
D	Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

59	EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN LEGEA. SEME-ALABAK ZAINTEKO LAN-UTZIALDIARI GAGOZKIOLARIK, ADIERAZI ZEIN DEN OKERREKO ERANTZUNA:
A	Seme-alaba bakoitza zaintzeko gehienez 3 urteko lan-utzialdirako eskubidea izango dute funtzionarioek.
B	Aitak eta amak lan egiten badute, biek baliatu ahal izango dute eskubide hori.
C	Egoera horretan ematen den denbora zenbatu egingo da hirurtekoei dagozkienetarako.
D	Lan-utzialdiak dirauen bitartean, betetzen zuen lanpostua gordetzeko eskubidea izango du funtzionarioak.
60	EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN LEGEA. EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO FUNTZIONARIOEI, BETETZEN ZUTEN LANPOSTUA DESAGERRAZI ONDOREN, BESTE DESTINO BAT EMATEA EZINEZKO BADA, EGOERA HONETARA IGAROKO DIRA:
A	Borondatezko lan-utzialdi pizgarriduna.
B	Zerbitzu bereziak.
C	Nahitaezko lan-utzialdia.
D	Ezinbesteko lan-utzialdia.
61	HAUXE DA FUNTZIONARIOEK BETETZEN DUTEN LANPOSTUAREN MAILAREN ARABERA JASOTZEN DUTEN ORDAINSARI OSAGARRIA:
A	Destino-osagarria.
B	Berariazko osagarria.
C	Produktibitate-osagarria.
D	Aparteko zerbitzuengatikoko esker-saria.
62	ONDORENGO HAUETATIK, ZEIN EZ DA FUNTZIONARIOEI EGINDAKO HUTSENGATIK JAR DAKIZKIEKEEN ZIGORRETAKO BAT?
A	Kargutik kentzea.
B	Ordainsarien murrizketa proportzionala.
C	Ohartarazpena.
D	Isuna.
63	HONAKO HONEGATIK GALDUKO DA LANPOSTU-ATXIKIPENA:
A	Zereginak galarazte irmoa, hiru hilabetetik gorakoa.
B	Berriro uko egitea, izendapena egin zuen organoak lehenengo aldian onartu ez, eta handik urtebetera.
C	Gaixotasun arruntaren ondoriozko baja, guztira hiru urtekoa –jarraian izan ez bada ere–, azken bost urteetan.
D	Borondatezko lan-utzialdia, interes partikularren-gatik.
64	BARNE SUSTAPENEN PROBATAN PARTE HARTU AHAL IZATEKO, DENBORA HAU EGINA IZAN BEHARKO DU FUNTZIONARIOAK JATORRIZKO KIDEGO EDO ESKALAN, KARRERAKO FUNTZIONARIO GISA:
A	Urtebeteko zerbitzu-aldia.
B	Bi urteko zerbitzu-aldia.
C	Lau urteko zerbitzu-aldia.
D	Hamar urteko zerbitzu-aldia.

65	FUNTZIONARIOENTZAT ERRESERBATUTA DAUDEN LANPOSTUAK SISTEMA HONEN BITARTEZ HORNITUKO DIRA:
A	Lehiaketa.
B	Izendapen librea.
C	Lehiaketa eta izendapen librea.
D	Ez lehiaketa, ez izendapen librea.
66	ADMINISTRAZIO KIDEGOKO FUNTZIONARIOAK HAUTATZEKO PROZESU BATEAN, ALDUNDIAN, BARNE SUSTAPENERAKO TXANDARAKO GORDE DIRA HAINBAT LANPOSTU, ETA GAINERAKOAK, BERRIZ, TXANDA IREKIRAKO GERATU DIRA. PROZESUA BUKATZEAN, ZEINEK AUKERATUKO DUTE DESTINOA LEHENIK?
A	Prozesua barne sustapenerako txandan gainditu duten funtzionarioek, behin betiko sailkapen-hurrenkeraren arabera.
B	Prozesua txanda irekian gainditu duten lehiakideek, behin betiko sailkapen-hurrenkeraren arabera.
C	Hautatze prozesuko behin betiko sailkapen-hurrenkeraren arabera, txanda bateko nahiz besteko izan.
D	Inork ez du destinoa aukeratzeko; administrazioak egiten du atxikipena, hutsik dauden lanpostuetako betebeharrak aintzat harturik.
67	15/1999 LEGEAREN 3. ARTIKULUAREN ARABERA, ONDORENGO DEFINIZIO HAUETATIK ZEIN DA OKERREKOA:
A	Fitxategia: izaera pertsonaleko datu multzo antolatu oro, sortzeko, gordetzeko, antolatzeko nahiz sarbidea izateko modua zeinahi izanik ere.
B	Izaera pertsonaleko datuak: pertsona fisiko nahiz juridiko identifikatu nahiz identifikagarriei dagokien edozein informazioa.
C	Bereizkuntza prozedura: lortzen den informazioa inongo pertsona identifikatu edo identifikagarriekin lotzeko aukerarik uzten ez duen datu pertsonalen tratamendu oro
D	Datu lagapen edo jakinarazpena: datuak interesdunaz beste edonori jakitera ematea.
68	15/1999 LEGEA. ADIERAZI BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN DEN ZUZENA:
A	Izaera pertsonaleko datuak inori jakitera emateko onespina ezeztatzina da.
B	Arraza-jatorriari, osasunari eta bizitza sexualari dagozkion izaera pertsonaleko datuak lege organiko batek hala xedatzen badu edo eragindakoak berariaz onartzen badu eskuratu, tratatu eta laga ahal izango dira.
C	Izaera pertsonaleko datuen tratamenduak eragindakoaren onspen zalantzarik gabea eskatuko du, salbu eta legeak besterik xedatzen badu.
D	Erregistratutako izaera pertsonaleko datuak erabateko partez okerrak edo osagabeak izatea egokituz gero, ezeztatu egingo dira, eta dagozkien datu zuzendu edo osatuak haien lekuan jarriko, interesdunak eskabidea egin ondoren.

69	ZER EPE IZANGO DU FITXATEGI BATEN TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK INTERESDUN JAKIN BATEN DATUAK ZUZENDU EDO EZEZTATZEKO, HARK ESKUBIDE HORI BALIATU NAHI DUE-LARIK?
A	Hamabost egun.
B	Hamar egun.
C	Hilabete.
D	Astebete.

70	ONDORENGO HAUETATIK, ZEIN EZ DA GIZON ETA EMAKUMEEN BERDINTASUNERAKO 4/2005 LEGEAREN 3. ARTIKULUAN JASOTZEN DIREN PRINTZIPIO OROKORRETAKO BAT?
A	Tratu berdintasuna.
B	Diskriminazio positiboa.
C	Ekintza positiboa.
D	Lankidetzeta eta koordinazioa.